

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ESKORIATZAKO UDALA

Iragarkia

Eskoriatzako Udaleko alkateak ondoko Ebazpena eman zuen 2020ko azaroaren 18an:

2020ko irailaren 29an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak Covid-19 pandemia dela eta, Eskoriatzako establezimenduak higie-ne edota babes behar berrietara egokitzeko dirulaguntzak emateko araudia hasiera batean onartzea erabaki zuen.

Oinarri horiek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu dira 2020ko urriaren 5ean, eta jendaurrean egoteko epean alegazio-rik aurkeztu ez denez, hartutako erabakiaren arabera oinarri horiek behin betikotzat jo dira beste erabakirik hartu behar izan gabe.

2020ko udal aurrekontuan 18.651,00 euroko diru partida bat jasotzen da aipatutako oinarrietan aurreikusitako diru laguntzak emateko.

Aurrez esandakoarengatik, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

Bat. Covid-19 pandemia dela eta, Eskoriatzako establezimenduak higie-ne edota babes behar berrietara egokitzeko dirulaguntzak emateko deialdia egitea 2020ko irailaren 29an egindako bilkuran udalbatzarrak onartutako oinarrien arabera. Oinarri horiek erabaki honen eranskin gisa doaz.

Bi. 18.651,00 euroko gastua onartzea 0500.771.430.00. 01 partidaren kontura.

Hiru. Eskaerak aurkezteko epea 2020ko abenduaren 11n amaituko da.

Eskoriatza, 2020ko azaroaren 18a.—Alkatea. (6153)

ERANSKINA

Covid-19 pandemia dela eta, Eskoriatzako establezimenduak higie-ne edota babes behar berrietara egokitzeko dirulaguntzak.

1. Helburua eta aplikazio eremua.

Dirulaguntza lerro honen helburua da Covid-19 pandemiagatik beharrezko diren higie-ne edota babes neurri bereziak ezartzeko inbertsioak eta ekipamenduen instalazioa finantzatzea. Laguntzak Eskoriatzako txikizkako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetako autonomoei eta enpresa txiki eta ertainei zuzenduta daude.

2. Establezimendu onuradunen ezaugarriak.

Programa honen dirulaguntzen onuradunak ondorengo baldintzak betetzen dituzten Eskoriatzako txikizkako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetako autonomo eta enpresa txiki eta ertainak izango dira:

— Eskoriatzan kokatutako establezimendua edukitzea.

AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA

Anuncio

La Alcaldía del Ayuntamiento de Eskoriatza dictó, con fecha 18 de noviembre la Resolución que se transcribe a continuación:

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión de fecha 29 de septiembre de 2020, adoptó el acuerdo de aprobar inicialmente la normativa para la concesión de subvenciones para la adaptación de los establecimientos de Eskoriatza a las nuevas necesidades higiénicas y/o de protección, con motivo de la pandemia Covid-19.

Publicada dicha normativa en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 5 de octubre de 2020 y pasado el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones, por lo que de conformidad al acuerdo adoptado se entiende dicha normativa aprobada definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

En el Presupuesto municipal de 2020 se contempla una partida de 18.651,00 euros para conceder las ayudas previstas en dichas bases.

Por todo lo anteriormente expuesto, y en uso de las competencias atribuidas por la Ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, el Alcalde,

RESUELVE

Primero. Convocar las ayudas para la adaptación de los establecimientos de Eskoriatza a las nuevas necesidades higiénicas y/o de protección, con motivo de la pandemia Covid-19, de conformidad con las Bases aprobadas por el Pleno en sesión del día 29 de septiembre de 2020. Se adjuntan dichas bases como anexo.

Segundo. Autorizar el gasto de 18.651,00 euros con cargo a la partida 0500.771.430.00.01.

Tercero. El plazo para presentar las solicitudes termina el día 11 de diciembre de 2020.

Eskoriatza, a 18 de noviembre de 2020.—El alcalde. (6153)

ANEXO

Subvenciones para la adaptación de los establecimientos de Eskoriatza a las nuevas necesidades higiénicas y/o de protección con motivo de la pandemia Covid-19.

1. Objeto y ámbito de aplicación.

El objeto de esta línea subvencional es financiar la instalación de equipamientos e inversiones para la implantación de medidas especiales de higie-ne y protección necesarias por la pandemia de la Covid-19. Las ayudas van dirigidas a los autónomos y autónomas y Pymes de los sectores del comercio minorista y hostelería de Eskoriatza.

2. Características de los establecimientos beneficiarios.

Podrán ser beneficiarias de estas ayudas los autónomos y autónomas y Pymes de los sectores del comercio minorista y hostelería de Eskoriatza que cumplan los siguientes requisitos:

— Disponer de establecimiento ubicado en Eskoriatza.

- Eskoriatzako Udalarekin zorrik ez edukitzea.
- Eskoriatzan kokatutako establezimenduaren jarduera nagusiak bezeroekin aurrez aurre egotea eskatzea.
- Covid-19 pandemiagatik bezeroekin aurrez aurre egon ahal izateko higie-ne edota babes neurri berri bereziak ezarri behar izatea.

3. *Diruz lagunduko diren inbertsioak eta produktuen erosketak.*

Laguntza lerro honen bitartez diruz lagunduko dira Covid-19 pandemiagatik bezeroekin aurrez aurre egoteko establezimenduan ezarri beharreko higie-ne edota babes neurri berri bereziak lotutako ondorengo ekipo edota instalazio gastuak:

- Espazioak eta lan egiteko moduak egokitzearrenak.
- Segurtasun eta osasun irizpideak/protokoloak betetzeko merkataritza edo ostalaritza lokalak egokitzeko inbertsio eta ekipamenduetan egindakoak.
- Bezeroekiko eta enpresa hornitzaileekiko harreman berri-tara lan egiteko moduak egokitzeko inbertsio eta ekipamenduetan egindakoak.

(Diruz lagunduko dira, besteak beste, ondorengo ekipamenduak: babes manparak, gel-banatzailak...).

Programa honek lagundu ahalko ditu 2020ko martxoaren 14tik hasi eta laguntza hauetako deialdian eskaerak aurkezteko ezarritako azken egunaren artean eginiko instalazioak edo material erosketak (fakturaren data hartuko da kontuan).

Programa honek ez ditu lagunduko gastu mota hauek:

- Produktu edo material suntsigarriak (gelak, maskarak...) erosteko gastuak.
- Covid-19 pandemia gertatu aurretik establezimenduak zerbitzua normaltasunez emateko onartuta eta ezarrita zituen berezko higie-ne neurriekin lotutako materialak erosteko eta egindako inbertsioei dagozkionak.
- Establezimenduak berak salgai jartzeko diren higie-ne edo babes produktuei dagozkionak.

4. *Dirulaguntzaren zenbatekoa.*

Dirulaguntzen deialdi honetan baimendutako kreditua dirulaguntzaren onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eta epe barruan aurkeztutako eskaerei erantzuteko erabiliko da, banaketa-irizpide honen arabera:

– Kreditua proportzionalki zatituko da, behar bezala justifikatutako gastuen arabera, onartutako eskabide guztien artean.

– Dirulaguntzek ez dute gaindituko onartutako gastuen % 100a.

5. *Dirulaguntza eskatzeko modua.*

Dirulaguntzak eskatzeko ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko du enpresak edo elkarteak:

- Eskaera orria beteta.
- Enpresa edo elkarte Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan alta emanda egotearen egiaztatzea.
- Dirulaguntza eskatzerako unean zerga betebeharrekin eta Gizarte Segurantzarekin lotutako ordainketak egunean dituela egiaztatzeko ziurtagiria.
- Enpresaren edo elkartearen ordezkariaren NANaren kopia.
- Covid-19 pandemiagatik bezeroekin aurrez aurre egoteko establezimenduan ezarritako higie-ne neurri berezi berriekin lotutako gastu eta inbertsioen fakturak.

- No tener deudas con el Ayuntamiento de Eskoriatza.
- Que la actividad principal del establecimiento ubicado en Eskoriatza sea de atención presencial al público.

– A causa de la pandemia Covid-19, haber tenido que establecer nuevas medidas higiénico-protectoras especiales para la prestación del servicio relacionado con la atención al público.

3. *Inversiones y compras de productos objeto de subvención.*

A través de esta línea subvencional se subvencionarán los gastos en equipos o instalaciones relacionados con las nuevas medidas especiales de higie-ne y protección a implantar en el establecimiento de atención al público por la pandemia Covid-19:

- Adaptación de los locales y formas de trabajo.
- Inversiones y equipamiento para la adecuación de los locales comerciales u hosteleros para el cumplimiento de los criterios/protocolos de seguridad y sanitarios.
- Inversiones y equipamiento para la adecuación de las formas de trabajo para las nuevas relaciones con la clientela y las entidades proveedoras.

(Serían objeto de subvención, entre otros, los siguientes equipamientos: mamparas de protección, terminales de dispensadores de geles ...).

Este programa podrá financiar aquellas instalaciones o inversiones de material que hubieran sido realizadas dentro del plazo comprendido entre el 14 de marzo de 2020 y el último día fijado en la convocatoria de estas ayudas para la presentación de las solicitudes (se tendrá en cuenta la fecha de la factura).

Este programa no subvencionará los siguientes tipos de gastos:

- Los relativos a adquisición de productos o material consumible (geles, mascarillas...).
- Los relativos a adquisición de material e inversiones relacionadas con las medidas higiénicas propias del establecimiento para la normal prestación del servicio ya asumidas e implantadas antes de la pandemia Covid-19.
- Los relativos a productos de higie-ne o protección destinados a la venta por el propio establecimiento.

4. *Cuantía de la subvención.*

El crédito autorizado en esta convocatoria de subvenciones se destinará a atender las solicitudes presentadas en plazo que reúnan los requisitos para ser beneficiarias de la subvención de conformidad con el siguiente criterio de reparto:

- El crédito se dividirá, sin más, proporcionalmente entre todas las solicitudes admitidas en función de los gastos correctamente justificados.
- Las subvenciones no superarán el importe del 100 % de los gastos admitidos.

5. *Forma de solicitud de la subvención.*

La empresa o asociación presentará la siguiente documentación para solicitar las subvenciones:

- Impreso de solicitud cumplimentado.
- Certificado de alta en el IAE de la empresa o asociación.
- Certificados de hallarse al corriente de pagos respecto a las obligaciones tributarias y Seguridad Social, correspondientes al momento de presentación de la solicitud de subvención.
- Copia del DNI del representante de la empresa o asociación.
- Facturas de gastos e inversiones relacionadas con las nuevas medidas especiales de higie-ne implantadas en el establecimiento de atención al público por la pandemia Covid-19.

6. *Eskoriatzako Udalari beharrezkoa iritzi gero, kasu bakoitzean eska lezakeen beste dokumentazio gehigarria.*

Eskaerak Eskoriatzako Udaleko Erregistro Orokorrean entregatuko dira, deialdi honen 6. oinarrian ezarritako epe barruan.

7. *Dirulaguntzak emateko prozedura.*

Dirulaguntzak emateko prozedura lehiarik gabeko konkurrenzia izango da, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez.

Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunak onartutako eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako deialdi baten bidez.

8. *Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik aurrera hasiko da.

Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztuko da.

9. *Programarako erabilgarri dagoen dirua.*

Programa hau «Higiene eta babes neurriak Covid-19» 0500.771.430.00.01 aurrekontu-partidaren kontura finantzatu da. 2020rako Udal Aurrekontutik 18.651 €-ko zuzkidura du partida horrek, Udalak kreditu hori berariaz handitzea erabaki ezean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, «Merkataritzako eta ostalaritzako sektoreetan ekonomia suspertzeko tokiko programa, Covid-19ri aurre egiteko» izeneko 2020rako laguntzen deialdiaren bidez, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune-ko Departamentuko foru diputatuaren 2020/07/14ko Foru Aginduaren bidez, gehienez 18.651 euroko dirulaguntza eman dio Eskoriatzako Udalari Eskoriatzako txikizkako eta ostalaritzako merkatariek euren establezimenduak pandemiaren ondorioz sortutako eskakizunetara egokitzeko egindako inbertsioak diruz laguntzeko.

10. *Eskaerak aztertzea eta ebaztea.*

Programa honen espedienteak tramitatzeko Ekonomia Garapen Jasangarrirako batzorde informatzailea arduratuko da.

Eskabideak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, interesdunek 10 eguneko epea izango dute antzemandako akatsak zuzentzeko, Udalak egindako errekerimendua jakinarazten zaien hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Epe horretan ez bada zuzentzerik egiten, Udalak ez du onartuko dirulaguntza eskaera, eta, beste tramiterik gabe, artxibatu egingo du espedienteak.

Ekonomia Garapen Jasangarrirako batzorde informatzailearen proposamena aztertu ondoren, Alkateak hartuko du dirulaguntza emateari buruzko erabakia.

Udalak bi hilabeteko epean erabakiko ditu eskaera guztiak.

11. *Ordaintzeko modua.*

Udalak gehienez ere hilabeteko epean ordainduko ditu laguntzak eskaera guztiak ebatzi ondoren.

12. *Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.*

Programa honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira kontzeptu beragatik diruz laguntzeko erakunde publiko edo pribatuetatik jasoko diren bestelako laguntzekin, betiere gain-finantzazioa gertatzen ez bada; kasu horretan, programa honen bidez emandako laguntza soberako zenbatekoan gutxituko da.

6. *Otra documentación adicional que, en su caso, se considere necesaria solicitar al Ayuntamiento de Eskoriatza.*

Las solicitudes se entregarán en el Registro General del Ayuntamiento de Eskoriatza dentro del plazo establecido en la base 6 de la presente convocatoria.

7. *Procedimiento de concesión de las solicitudes.*

El procedimiento de concesión será el de concurrencia no competitiva, mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

8. *Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes comenzará a partir del día siguiente al de la publicación de la correspondiente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

9. *Disponibilidad económica del programa.*

Este programa será financiado con cargo a la partida presupuestaria 0500.771.430.00.01 «Higiene eta babes neurriak Covid-19» del Presupuesto Municipal 2020, cuya dotación asciende a 18.651 €, salvo que el Ayuntamiento decida expresamente incrementar dicho crédito.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de la convocatoria de ayudas 2020 del «Programa para la reactivación económica local en los sectores del comercio y hostelería para hacer frente al Covid-19», mediante Orden Foral de 14/07/2020 del Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, ha concedido al Ayuntamiento de Eskoriatza una subvención de hasta 18.651 € para subvencionar las inversiones realizadas por el comercio minorista y hostelero de Eskoriatza para adecuar sus establecimientos a los requerimientos sobreenvidados a causa de la pandemia Covid-19.

10. *Análisis y resolución de solicitudes.*

La tramitación de los expedientes de este programa corresponderá a la Comisión Informativa de Desarrollo Económico.

Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún defecto o sea incompleta, los interesados dispondrán de un plazo de 10 días, contados a partir del siguiente al de la notificación del requerimiento efectuado por el Ayuntamiento, para subsanar los defectos observados.

Transcurrido el plazo concedido sin haber procedido a la subsanación, el Ayuntamiento inadmitirá la solicitud de subvención y archivará el expediente sin más trámite.

Una vez vista la propuesta de la Comisión Informativa de Desarrollo Económico, el Alcalde resolverá sobre la concesión de la subvención.

El Ayuntamiento resolverá todas las solicitudes en el plazo de dos meses.

11. *Forma de pago.*

El pago de las ayudas se realizará por el Ayuntamiento en el plazo máximo de un mes desde la resolución de todas las solicitudes.

12. *Compatibilidad con otras subvenciones.*

Las ayudas previstas en el presente Programa serán compatibles con cualesquiera otras que por el mismo concepto pudieran percibirse de otras entidades públicas o privadas, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación, en cuyo caso la ayuda concedida en virtud de este Programa se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso.

13. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, hauek aplikatuko dira: Eskoriatzako Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza, dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden arauak, gai honi aplikatu dakizkiokeenak.

13. Normativa aplicable.

En lo no previsto en estas bases, será de aplicación la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza, la Ley 38/2003 General de Subvenciones y la normativa vigente que resulte de aplicación a esta materia.